



GASTEIZKO
UDALAREN
IV. GAZTE
PLANA



Tresnak



Gazte Plan orok pertsona gazteen errealitate zehatzetan eragiten eta errealitate horietan aldaketa sortzen saiatzen diren ekintzak jasotzen ditu, pertsona gazteen bizi-baldintzak hobetzeko eta haien itxaropenetara eta beharretara hurbiltzeko asmoz. Baina badira oinarritzko zenbait ekintza, Gazte Planeko gainerako lerro eta eremuetako ekintzen euskarri direnak.

Tresnen 6. lerro honetan bildu ditugu eta hiru eremutan multzokatu ditugu:

- Informazioaren eta komunikazioaren eremua.
- Errealitatearen behaketa.
- Jarraipena eta ebaluazioa.

ERRONKAK

1. Udalak eta hiriak garatzeko eta emantzipaziorako prozesuetarako eskaintzen dizkieten baliabideak ezagutzen dituzten pertsona gazteak.

2. Vitoria-Gasteizko pertsona gazteen errealitatearen ezagutza eguneratua izatea.

3. Etengabeko hobekuntza ahalbidetzea Udalaren Gazte Planeko ekintzak garatzeko orduan.

HELBURUAK

Informazioa eta komunikazioa.

- 1 Pertsona gazteek eta gazteriaren esparruko eragileek Gazte Plana eta plan horren ekintzak ezagutzea.

Errealitatearen behaketa.

- 2 Vitoria-Gasteizko pertsona gazteen errealitatearen ezagutza eguneratzea, Gazte Planeko ekintzak gazteen beharretara eta itxaropenetara egokitzeko Gazte Planaren garapenaren une bakoitzean.

Jarraipena eta ebaluazioa.

- 3 Ekintzak berriro definitzeko aukera ematea, horien parametroen ebaluazioan oinarrituta.

Komunikazioaren erronkak berorren bi aldeak izan behar ditu kontuan, komunikatzea eta entzutea:

- Gazte Planeko ekintzak eta Gazte Plana bera, hiriaren proposamena den heinean, ondo **komunikatzea**, eta, horrez gain, Gazteria Zerbitzuak eta udaleko beste sail batzuek eskaintzen dituzten baliabideak ere komunikatzea, Gasteizko gazteek ez baitituzte ondo ezagutzen.
- Gazteen ahotsa **entzutea**, haien premiak, itxaropenak eta iritziak.

Badira jada barneratuta dauden eta **Gazte Planeko** ekintzen zati diren beste helburu batzuk.

- Gazte Planeko ekintzetan gazteen presentziari eta protagonismoari eustea.
- Pertsona gazteen errealitatea ikusgai egitea hirian.
- Gazte Planeko ekintzetan eta Gazte Planarekin lotutako gazteriaren esparruko beste eragile batzuek garatzen dituztenetan pertsona gazteek parte hartzea lortzea.
- Pertsona gazteek eta gazteriaren esparruko eragileek Gazte Plana eta plan horren ekintzak ezagutzea.

UDALAREN JARDUKETAK

■ **Informazioa eta komunikazioa.**

Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoa nahiz Gazte Planean erabiltzen diren tresnak pertsona gazteei entzuteko eta haiekin komunikatzeko helburuetan aurrera egiten saiatzen dira. Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan zuzenean egiten dute zeregin hori, edo “Ezagutu Gazteen Argibideetarako Bulegoa” berariazko programaren bidez (ikastetxeetara eta beste talde batzuetara bisitak eginez). Sare sozialei, web orrialdeari, albistegi gazteari eta VGaztea blogari eutsiko diegu IV. Gazte Plan honetan, eta horiek hobetzen saiatuko gara; izan ere, gazteek behin eta berriz esaten digute zaila dela gazteriako web orrian (udalaren webgunearen txertatuta dago) sartzea eta ez diela haien nahi eta beharrei erantzuten.

Alkatzeko Komunikazio Taldearen babesa eta hainbat zerbitzuren laguntza, hala nola **erreprografia, komunikazioa eta protokoloa** eta antzeko beste zerbitzu batzuen, oso garrantzitsuak dira helburu horiek bete daitezzen. **Edukien Unitatea** da funtsezko beste elementu bat, udalaren webguneko edukiak kudeatzen dituena.

■ **Errealitatearen behaketa.**

Gasteizko pertsona gazteen errealitatearen Behatokiaren zeregina, 2009ko II. Gazte Planean abiatutakoa, handitu eta hobetu egin da, udaleko Ikerketa Bulegoaren laguntzari esker eta Enplegu Sailean, Gizarte Politiken Sailean, Parte-hartze Sailean nahiz beste sail batzuetan eta gizarte-etxeetan beren esparruetako errealitatea aztertzen duten pertsonen lankidetzari esker. Eusko Jaurlaritzako Gazteen Euskal Behatokiaren babesa eta laguntza funtsezkoa izango da IV. Gazte Plan honetako Behatokiaren helburuak lortzeko.

■ **Jarraipena eta ebaluazioa.**

Ekintzen arduradunek eta erantzunkideek parte-hartzearen bidez eta modu koordinatuan ebaluatzen dituzte ekintzak; horixe da azkeneko planetan erabili dugun sistema, eta oraingo honetan arlo hori hobetzen saiatuko gara. Jarraipena eta ebaluazioa egiteko guneak Gazteriako Elkargunea (elkarteen kasuan) eta jarraipen-batzordeak (maila politiko eta teknikoan) dira.

Horrez gain, bi urtean behin egiten diren inkestek Gazte Planaren eta horren barnean garatutako ekintzen inguruan gazteek oro har egiten duten balioespenaren eta duten ezagutzaren berri emango digute.

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK

ERRONKAK

Udalak eta hiriak garatzeko eta emantzipaziorako prozesuetarako eskaintzen dizkieten baliabideak ezagutzen dituzten pertsona gazteak. Komunikatzea eta entzutea.

HELBURUAK

- 1** Pertsona gazteek eta gazteriaren esparruko eragileek Gazte Plana eta plan horren ekintzak ezagutzea.

EKINTZAK

- L.6-1 “EZAGUTU IV. GAZTE PLANA – CONOCE EL IV PLAN JOVEN” JARDUNALDIA
- L.6-2 KOMUNIKAZIOARI ETA GAZTEEI BURUZKO DIZIPLINARTEKO TOPAKETA
- L.6-3 GAZTEEKIN SAREAN KOMUNIKATZEKO PROIEKTUA AZTERTZEA

ERREALITATEARI BEHATZEKO ERREMINTAK

ERRONKAK

Gasteizko gazteen errealitatearen gaur egungo egoera ezagutzea.

HELBURUAK

- 2** Vitoria-Gasteizko pertsona gazteen errealitatearen ezagutza eguneratzea, Gazte Planeko ekintzak gazteen beharretara eta itxaropenetara egokitzeko Gazte Planaren garapenaren une bakoitzean.

EKINTZAK

- L.6-4 GAZTE PLANEKO BEHATOKIAREN TXOSTEN BEREZIAK
- L.6-5 LUDOPATIEN AZTERKETA GASTEIZKO GAZTEEN ARTEAN
- L.6-6 GAZTEEK JUSTIZIAREKIN DUTEN HARREMANAREN AZTERKETA
- L.6-7 GAZTEEN GIZARTE-EZEGONKORTASUNAREN AZTERKETA
- L.6-8 ALOKAIKIRUAN BIZI DIREN GAZTEEN BALDINTZEN DIAGNOSTIKOA

JARRAIPEN ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK

ERRONKAK

Etengabeko hobekuntzarako aukera ematea Udaleko Gazte Planeko ekintzak garatzeko orduan

HELBURUAK

EKINTZAK

3 Ekintzak berriro definitzeko aukera ematea, horien parametroen ebaluazioan oinarrituta.

L.6-9 IV. GAZTE PLANAREN JARRAIPEN-INKESTAK

EKINTZAK

INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

L.6-1 EKINTZA

“Ezagutu IV gazte plana/conoce el IV Plan Joven” Jardunaldia

JGazte Planaren edukia zabaltzeko jardunaldia, otsailean (bukaera aldera) egitekoa. 2 egitura ditu:

Goizean, hitzaldia eta politikariei zuzendutako aurkezpena. Langile teknikoak eta aliatuak (Elkargune eta laguntzaileak).

Arratsaldean, erakusketa eta gazteei zuzendutako jarduerak egingo dira, eta ekarpenak bilduko dira (erakusketa ibiltaria izan daiteke, eta, ondoren, gizarte-etxeetara, ikastetxeetara, etab. eraman daiteke). Pentsarekin gosari bat antola daiteke, osatzeko.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Komunikazio Kabinetea

2017

G PLANAREN AURREKONTUA

11.000 €

BESTE SAILEN AURREKONTUA

AURREKONTUA GUZTIRA

11.000 €

L.6-2 EKINTZA

Komunikazioari eta Gazteei Buruzko Diziplinarteko Topaketa

Gazteen (EGK-ko prentsa-arduraduna eta hainbat diziplinatuko gazteak, elkarteetakoak, sortzaileak, euskara, landa-inguruak...), udaleko edukien arloko teknikarien, alderdi politikoetako prentsa-arduradunen eta komunikabideetako profesionalen arteko topaketa, komunikazioaren eta gazteen gaia lantzeko: bideak, estereotipoekin sortzen diren arazoak, hedapen-arazoak, teknologia berriak...

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Komunikazio Kabinetea

2017

G PLANAREN AURREKONTUA

2.000 €

BESTE SAILEN AURREKONTUA

AURREKONTUA GUZTIRA

2.000 €

L.6-3 EKINTZA

Gazteekin sarean komunikatzeko proiektua aztertzea

Pertsona gazteekin Internet bidez errazago komunikatzeko dauden aukerak eta errealitateak aztertzea, eta Gazte Planak eta Gazteria Zerbitzuak udalerriko gazteekin duten bi noranzkoetako komunikazioa hobetzeko proiektu bat egitea.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua
Erantzunkideak: Informazio Zerbitzua

	2018	2019
G PLANAREN AURREKONTUA		6.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		6.000 €

ERREALITATEAREN BEHAKETA

L.6-4 EKINTZA

Gazte Planeko behatokiaren txosten bereziak

Urtero, hainbat arlotan adituak diren hiru gaztek sei hilabetez lagunduko digute, ikertu nahi ditugun errealitate zehatzei buruzko txosten bereziak eta berariazko ikerketak egiten, Gazte Planean edo udaleko beste edozein sailtan etorkizunera begirako gure gazte-politikak egokitu ahal izateko.

Arduraduna:
Gazteria Zerbitzua
Erantzunkideak:
Ikerketa Bulegoa eta Behatokia

	2017	2018	2019
G PLANAREN AURREKONTUA			
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
AURREKONTUA GUZTIRA			



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

L.6-5 EKINTZA

Ludopatien azterketa Gasteizko gazteen artean

Desabantaila-egoerak eta jokabide arriskutsuak lantzen dituen taldeak egindako proposamenetan oinarrituta, gazteen errealitatearen ezagutza eguneratzeko beharra ikusi zen, oso azkar aldatzen den eta hainbat joko-moduren artean loturak dituen errealitate batekin lotuta.

Zeregin horretarako bidaide egokiena ASAJER elkarteak litzateke, eta lankidetzan egindako lanak balio handiagoa esleituko dio ikerketa horri, hala, etorkizunean eremu horretara zuzendutako ekintzak egin ahal izateko.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Asajer

2019

G PLANAREN AURREKONTUA



BESTE SAILEN AURREKONTUA

AURREKONTUA GUZTIRA



L.6-6 EKINTZA

Gazteek justiziarekin duten harremanaren azterketa

Gizartearen aurkako jarrerak edo jokabideak dituzten gazteen azterketa kuantitatiboa, jokabide horien ondorioz atxilotetak edo akusazioak gertatzen direnean; udaltzaingoak emandako datuak erabiliko dira, bai eta Gasteizko informazioa duten beste erakunde batzuek emandako datuak ere (Ertzaintza eta Fiskaltza).

Azterketa egin ondoren, desabantaila-egoera hori lantzeko beste ekintza batzuk bilatu ahal izango dira etorkizunean.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Udaltzaingoa

2018

G PLANAREN AURREKONTUA



BESTE SAILEN AURREKONTUA

AURREKONTUA GUZTIRA



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

L.6-7 EKINTZA

Gazteen gizarte-ezegonkortasunaren azterketa

Gasteizko gazteen gizarte-ezegonkortasunaren azterketa kuantitatiboa (Gizarte Politiken Saileko datuetan oinarrituta) eta kualitatiboa (Gizarte Politiken Sailak hiriko hainbat eragilerekin osatutako lantaldeekin batera).

Azterketa horretan oinarrituta, etorkizuneko jarduketak zehaztuko dira, eta jada abian daudenak berriro definitu ahal izango dira, aurrerantzean prebentzio-lan hobea egin ahal izateko eta egungo zereginetan esku-hartze egokiagoa egiteko.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Gizarte Politiken Saila

2017	2018	2019
G PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		

L.6-8 EKINTZA

Alokairuan bizi diren gazteen baldintzen diagnostikoa

Alokairuan bizi diren gazteak, askotan, oso modu "ez-egonkorrean" eta baldintza txarretan bizi dira. Adibidez, askotan ezin dira bizi diren etxebizitzan erroldatu, eta horrek ondorioak dakarzkie (ezin dute DSBE jaso, ez dituzte lan egiteko neurri batzuk betetzen...).

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: 21 Zabalgunea

		2019
G PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

L.6-9 EKINTZA

IV. Gazte-Planaren jarraipen-inkestak

Errealitatearen ezagutza eguneratua izateko helburuarekin, 2018ko urtarrilean eta otsailean inkesta bat egitea proposatzen da, Behatokiarekin eta enpresa esleipendunarekin batera.

Adierazleen multzoa aberastu egingo litzateke, eta egokia izan daiteke Gazte Planeko 2020ko adierazleekin konparatzeko adierazleak izatea.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Ikerketa Bulegoa eta Behatokia

		
G PLANAREN AURREKONTUA		
	18.000 €	
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
	18.000 €	